



Langile, familia eta talde zaurgarriei laguntzeko neurriak (8/2020 Errege Lege Dekretuaren 18., 19. eta 20. artikulua). Neurriak, printzipioz, hilabetez izango dira indarrean, nahiz eta alarma-egoerak iraun bitartean luzatu ahal izango diren.

TELEKOMUNIKAZIOAK

Alarma-egoerak iraun bitartean, ezingo dira telekomunikazio-zerbitzuak eten, kontsumitzaileek sinatutako kontratuek aukera hori jasotzen badute ere. Salbuespena izango da komunikazio elektronikoko zerbitzuen eta sareen integritatea eta segurtasuna arriskuan daudenean.

Modu horretan, ziurtatuko da komunikazio elektronikoko zerbitzuak, banda zabalaren konektagarritasuna eta telekomunikazioen zerbitzu unibertsala mantenduko direla.

Bestalde, zerbitzuak kontratatzeko **ezohizko kanpaina komertzialak** egitea debekatuta dago, zenbakiaren eramangarritasuna beharrezkoa denean. Neurri horrekin, teknikariak etxebizitzetara joan behar izatea eta erabiltzaileen joan-etorriak ekidin nahi dira.

Ondorioz, **martxan ez dagoen zenbaki finko eta mugikorren eramangarritasun-prozesua eten egingo da**, eta halabeharrezko kasuetan baino ezingo da aurrera eraman.

OHIKO GALDERAK

Telekomunikazio-zerbitzuetan luzamendua ezarriko da?

Berez, ez da luzamendurik ezarriko; alarma-egoerak iraun bitartean, ordea, komunikazio elektronikoko zerbitzua bermatuta dago, eta ez ordaintzeagatik ezingo da eten.

Herritar guztiek izango dituzte bermatuta komunikazio horiek?

Alarma-egoerak iraun bitartean, telekomunikazioetako operadoreek mantendu egin behar dituzte haien bezeroek kontratatutako komunikazio elektronikoko zerbitzuak, eta ezingo dituzte eten, kontratuek aukera hori jasotzen badute ere.

COVID19 krisiaren aurretik hasita nituen izapideak helbide berrian interneta eta telefonoa jartzeko. Prozedurak aurrera egingo du edo eten egingo da, bestelakorik esan arte?



Alarma-egoerak iraun bitartean, martxan ez dauden zenbaki finioen eta mugikorren eramangarritasun-prozesuak eten egingo dira; ez, ordea, komunikazio elektronikoko zerbitzuen kontratu berriak. Argibiderik behar izanez gero, zerbitzuaren hornitzaileari kontsultatu.

Ainhoa Orrantia
Kontsumo Saileko Arduraduna
TOLOSALDEKO KIUB

